

## ERREPIDEKO PROBEN ARAUDIA

2021.02.20

### XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua.-** Araudi honen bidez, EUSKADIKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOAK, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako Federazioekin eta haiei atxikitako klubekin eta kirol taldeekin lankidetzan, errepide-txapelketa hauek antolatu eta erregulatzen ditu: Lehendakari Txapelketa, Euskaldun, **Abiatzen**, Euskal-Herria, Gaztetxoak eta Emakumeen Euskaldun Txapelketa eta Euskadiko Errepide Lehiaketak.

2021.02.20

**2. artikulua.-** Araudi hau aplikaziozkoa da nazioarteko (Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasuna) edo nazioko (Espainiako Txirrindulari Errege Federazia) egutegietan jaso gabe dauden errepide-txapelketetan eta Euskadiko Errepide Lehiaketetan, eta probetan parte hartzen duten pertsona guztiak biltzen ditu. Nahitaezkoa da araudi hori ezagutzea, eta ezin da inolaz ere kontrakoa alegatu.

**3. artikulua.-** Araudi honetan jasotako errepide-txapelketetako xedapen partikularrak salbu, txapelketak Espainiako Txirrindulari Errege Federazioaren araudi teknikoetan eta Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunaren txirrindularitza araudian ezarritakoaren arabera arautuko dira.

**4. artikulua.-** Epaimahai teknikoak, lehenbizi, eta ETxF-k araudia aldatzeko eta haren aplikaziotik eta/edo interpretaziotik eratorritako egoerak eta ezohiko kasuak ebazteko eskubidea du, proba bakoitzeko jarduera-eremuari dagokionez.

### EGUTEGIA – PROBA PUNTUAGARRIAK

**5. artikulua.-** ETxF-ren Batzorde Teknikoak hautatuko ditu ETxF-ren txapelketa-egutegia osatzen duten probak, Baldintza Plegua betetzen duten eskaerak aztertu ondoren.

**6. artikulua.-** Araudi honen 1. artikuluan agertzen den lehiaketa bakoitzean, ETxF-ren urteko egutegian inskribatutako probak independenteki puntuatuko dira, proba gisa jasota badaude txapelketa hauetan: Lehendakari Txapelketa, Euskaldun, **Abiatzen**, Euskal Herria, Gaztetxoak eta Emakumeen Euskaldun Txapelketa.

2021.02.20

**7. artikulua.-** Klub antolatzaleek beren Lurralde Federazioen bitartez daten proposamenak egingo dizkiote ETxF-ri, Ohiko Batzarra egin aurretik. ETxF-k prestatuko du behin betiko egutegia.

**8. artikulua.-** Justifikatu gabeko arrazoiengatik proba eteten bada, klub antolatzaleak data eta kategoria horretarako lehentasuna galduko du, hurrengo urteetan.

### PARTE HARTZEKO ETA IZENA EMATEKO BALDINTZAK

**9. artikulua.-** Errepide-txapelketako probetan, 1. artikuluan adierazitako Federazioek igorritako lizentzia indarrean duten txirrindulari guztiekin parte har dezakete, baita Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunera kidetutako Federazioetako lizentziadunek ere, Araudi honetan adierazitako baldintzak betetzen baditzte, betiere.

Bi talde atzerritarrek parte hartu dezakete, txirrindulari-kopuru berarekin.

Parte hartzaleen adinak mugatzen dira lasterketa burutzen den urtea eta lasterkariaren jaiotze urtearen artean aldearen bidez.

**9. Bis Artikulua – ETxFren zirkular beste zentzuan izan ezik espresuki, inskripzioa ETxF-ko webgunean proba bakoitzaren alboan argitaratutako Inskripzio Formulario ofizialaren bidez formalizatu behar da.**

**Betetzea amaitzean eta kasu bakoitzean finkatutako epea kontuan hartuta, Inskripzio Formularioa bertan adierazitako e-mail helbidera bidali beharko da.**



**Bere inskripzioa formulario bidez formalizatu ez dutenek, denboran eta forman, ezin izango dute proban parte hartu.**

**Inskripzioaren egiaztapena Irteerarekiko 45'-ko aurrerapenarekin egin ahal izango da, Lasterketa Komisarioen Elkargoak lizentzia egiaztatu behar izanik.**

**2021.02.20**

**10. artikulua.-** Talde bakoitzean, Espainiako Txirrindulari Errege Federazioak igorritako lizentziarik ez duten Europako Erkidegoaz kanpoko bi (2) korrikalarirekin parte har dezake, gehienez ere. Puntu hori ezin zaie atzerriko ekipoei aplikatu, ezta kadete eta junior kategorietako mutil-taldeei, eta ezta ere orokorrean neska-taldeei.

**11. artikulua.-** ETxF-ren inskripzio-orrieta jasota ez dauden txirrindulariek lizentzia aurkeztu beharko dute, proban izena eman ahal izateko.

**12. artikulua.-** Federazio Autonomiko Homologatuek edo Espainiako Txirrindulari Errege Federazioek igorritako lizentziarik ez dutenek egiaztatu beharko dute Espainian egingo diren txapelketen behar bezala aseguratuta daudela, istripuen eta erantzukizun zibilaren kontra. Horretarako, **agiri ofiziala** aurkeztu beharko dute ETxF-n, euskaraz, gaztelaniaz frantsesez edo ingelesez idatzita.

ETxF-k egoera erregularizatuta duten txirrindularien zerrenda eguneratua emango dio proba bakoitzeko epaimahai teknikoari, eta baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ezean, txirrindulariek ezingo dute proban parte hartu.

**13. artikulua.-** Parte hartzeraoa, talde eta txirrindulari guztiak ziurtatu beharko dute Araudi hau errespetatu eta zorroztasunez beteko dutela.

#### **KIROL ZUZENDARIAK**

**14. artikulua.-** Talde bakoitzak bere kirol zuzendaria izango du, eta lizentzia indarrean duela egiaztatu beharko du probaren Epaimahai Teknikoaren aurrean, taldea inskribatzerakoan. Kirol-zuzendaria taldeko kidea eta horren arduraduna da. Epaimahai Teknikoari ematen zaion inskripzioan haren izena agertu beharko da.

Kirol-zuzendari titularra ezin bada proba jakin batera bertaratu, haren ordez ekipo bereko kide batek jardun dezake. Horretarako, taldekidea (mekanikaria, masajista, etab.) dela egiaztatzen duen lizentzia erakutsi beharko du nahitaez. Ordezkoek titularrek dituzten eskubide eta betebehar berdinak izango dituzte.

#### **BILERAK ETA TALDEEN AUTOEN ORDENA**

**15. artikulua.-** Bestelakoik xedatu ezean, Epaimahai Teknikoak edo Federazio antolatzaileak edo ordezkariak hala eskatuta, autoen ordena zozketatzeko bilera egingo da, proba bakoitza hasi baino hamabost (15) minuto lehenago, eta taldeko arduradun guztiak bertaratu beharko dira nahitaez.

Laguntza-autoak lasterketan zirkula dezan, taldeak gutxienez hiru (3) txirrindularirekin parte hartu beharko du. Hori ez da aplikaziozkoa izango Gaztetxoak Txapelketan.

Euskadiko txapelketa guztietan, ETxF-k auto-zenbakiak banatuko ditu.

#### **LAGUNTZAK - AUTO NEUTROAK**

**16. artikulua.-** Txirrindulariek beren taldeko autoko edo auto neutro bateko teknikariaren laguntza jaso dezakete, edo, kasuan kasun, lasterketaren amaierako autoarena (erratz-autoak).

Gainera, txirrindulariek beste talde baten autoko teknikariaren laguntza jaso dezake, materialari zein mekanikari dagokienez.

**17. artikulua.-** Auto neutroak behar bezala identifikatu beharko dira, eta auto bakoitzean, gidariaz aparte, mekanikaria egongo da. Probako Epaimahai Teknikoak esleitutako tokian jarriko dira, uneoro, eta parte-hartzaileei gurpilak aldatzen zaizkiela bermatuko dute.



ETxF-ren auto neutroa Nafarroako Foru Erkidegoko proba batera bertaratuko ez balitz, Nafarroako Txirrindularitza Federazioak egiaztatutako autoak ordezkatuko luke, dagozkion ondorio guztiarako. Horren arduradunak bere gain hartuko ditu ETxF-ko ordezkariri emandako erantzukizunak.

Erratz-autoak aurreko eta atzeko bi (2) gurpil-joko izango ditu txirrindularientzat, antolakuntzak emanak.

Txirrindulari batek auto neutroaren edo erratz-autoaren laguntza jaso badu, txirrindulariak edo haren taldeak emandako materiala itzuli beharko du.

#### LIDERRAREN MAILLOTA

**18. artikula.-** Sailkapen orokor indibidualeko liderrak(**ek**) maillota eraman behar du(**te**) txapelketaren hurrengo proban.

**2021.02.20**

#### ZENBAKIAK ETA IDENTIFIKAZIORAKO BESTE BALIABIDEAK

**19. artikula.-** Txirrindulariek esleitutako zenbakia erabiliko dute -txapelketaren arabera, ETxF edo beren Lurraldeko Federazioak emandakoa-, eta zenbakia berdina izango da beti txapelketen probetan zein Euskadiko errepide- txapelketetan.

Zenbaki bakarra ematen bada, ezkerraldean jarri beharko da, kontrakoa xedatu ezean.

Kadete eta Junior kategorietako txirrindulariek esleitutako zenbakia eramatzen ez badute, zigorra jasoko dute. Errepikatuko balitz, txirrindulariak ez du izango proba horretan ateratzeko baimenik.

Horretaz gain, txirrindulariei beren identifikaziorako edozein motatako euskarri elektronikoa banatzen bazaie, derrigorrez eraman eta ipini behar dute.

#### KONTROL AMAIERA

**20. artikula.-** Helmugara garailea baino hamabost (15) minutu beranduago iristen diren txirrindulariak kontrolez kanpo geratuko dira.

Parte-hartzaile batek ezin badu azken txirrindularientzat aurreikusitako denbora bete edo probaren kontrol-denbora gainditzen badu, txapelketa-gunearen amaiera mugatzen duen ikurrin berdedun ibilgailuak pasatuko du, eta proba utzi beharko du, autoen trafikoa eta probaren bera ez oztopatzeko. Jarraitzekotan, zenbakia kentzea eta trafiko-arauak eta seinaleak betetzea nahitaezkoa da, eta bide-erabiltzaile soila dela iritziko zaio. (Trafikoari buruzko 19/2001 Legearen 6.2. artikula)

#### INFORMAZIOA LASTERKETAN ZEHAR

**21. artikula.-** Epaimahai Teknikoko lehendakariaren ibilgailuan, itzuliaren irratia jarriko da (151.700 MHz.), probari buruzko informazioa emateko eta Epaimahai Teknikoak dagozkion argibidean jakinarazi ditzan.

Antolatzaileak izendatuko du itzuliko irratia esataria.


Epaimahai Teknikoak inskripzio ofiziala banatuko die kirol-zuzendariei, irteera eman aurretik. Xedapen hori betetzeko, kirol-zuzendariek nahitaez proba hasi baino hogeita hamar (30) minutu lehenago inskripzioa burututa eduki behar dute.

Kontrako xedapenik ezean, irratienplegua edo urrutiko beste komunikazio-gailu batzuk txirrindulariekin edo txirrindularien arteko, eta horretarako baliozko edozein ekipamendu edukitzea debekatua dago Lineako probetan.

#### PROTOKOLOA

**22. artikula.-** Txirrindulari guztiekin postuekin, sailkapenekin, ekintzeken eta maillotak jartzeko ekitaldiekin lotutako protokolo-zeremonian parte hartu behar dute nahitaez.

Txirrindulariek lasterketa-arropekin azaldu behar dute protokolo-zeremoniara.



#### LASTERKETA AKTAK

**23. artikula.-** Proba bakoitzeko Epaimahai Teknikoak Lasterketaren Akta Ofiziala eta inskripzio-orri ofiziala eta sarien eta dieten xehetasunak banatu behar dizkie ETxF-ri eta Lurralde Federazioei, proba burutu eta berrogeita zortzi (48) orduko epean, gehienez ere.

#### DOPINAREN AURKAKO KONTROLA

**24. artikula.-** Edozein probatan egin daiteke, aldez aurretik ohartarazi gabe. Beraz, ANTOLATZAILE GUZTIEK Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunaren Araudia betetzen duen lokal bat eduki beharko dute, dopinaren aurkako kontrola egiteko.

#### ZIGORRAK

**25. artikula.-** Zigorra teknikoak edo diziplinazkoak izan daitezke. Probaren Epaimahai Teknikoak jarriko ditu zigor teknikoak, eta diziplina-organo eskudunak, berriz, diziplinazkoak.

Antolatzaileak sarietatik kenduko ditu Epaimahai Teknikoak ezarritako zigorra, eta ETxF-ra transferitu.

Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasuneko Txirrindularitza Araudian ezarritako zigor-taula aplikatuko da, ondoko koadroaren araberako ehuneko murritzalea aplikatuz eta suitzar frankoak urteroko urtarrilaren 1ean duen balioa aintzat hartuz.

ELITE-23 URTEZ AZPIKOAK	JUNIOR/KADETE	EMAKUMEAK
% 25	% 35	% 50

#### PROBA BAKOITZEKO TALDE SAILKAPENAK

**26. artikula.-** Talde bakoitzetik sailkatu diren lehenengo hiru txirrindulariek egindako denboren batura izango da, eta sailkapen onena lortuko du denbora gutxienean egin duen taldeak. Berdinketarik balego, sailkatu diren lehenengo hiru txirrindularien postuak batuta puntu gutxiengoa lortu dituen taldea sailkapenean aurretik egongo da. Berdinketak jarraitzen badu, Denboren Sailkapen Indibidualean posturik onena lortu duen txirrindulariaren taldea sailkapenean aurretik egongo da.

#### MENDIKO SAILKAPEN INDIBIDUALA

**27. artikula.-** Txirrindulari bakoitzak gailur puntuagarriean lortutako puntuak batuko dira, eta puntu gehien lortu dituen txirrindulariak jasoko du sailkapenik onena. Berdinketarik balego, helmugan sailkapenik onena lortu duen txirrindularia aurretik egongo da sailkapenean.

Postuak	Gailurren kategoria		
	1.a	2.a	3.a
1.	10	6	3
2.	8	4	2
3.	6	2	1
4.	4	1	
5.	2		
6.	1		

#### TARTEKO HELMUGEN SAILKAPEN INDIBIDUALA

**28. artikula.-** Txirrindulari bakoitzak ezarritako helmugetan lortutako puntuak batuko dira, eta puntu gehien lortu dituen txirrindulariak jasoko du sailkapenik onena. Berdinketarik balego, helmugan sailkapenik onena lortu duen txirrindularia aurretik egongo da sailkapenean.

Postuak	Puntuak
1.	3
2.	2
3.	1



ESPRINT BEREZIETAN, sailkapen-sistema bera erabiliko da.

## SAILKAPEN OROKORRAK

### 29. artikulua

A. Kontrakoa xedatu ezean, txapelketetako sailkapen orokorrak hauei dagokie esklusiboki:

#### 1. Sailkapen orokor indibiduala

1. artikuluan jasotako Federazioek igorritako lizentzia indarrean duten txirrindulariak eta Federazio horietara atxikita dauden taldeetako kideak.

#### 2. Taldekako sailkapen orokorra

Lehiaketa-oinarrien 1. artikuluan jasotako Federazioetara atxikitako taldeak.

### B. Sailkapen orokor indibiduala

Txirrindulari bakoitzak proba bakoitzean lortutako puntuen batura izango da.


Puntuetan berdinketarik balego, proba puntuagarriean lehenengo postu gehien lortu dituen txirrindularia sailkapenean aurretik egongo da. Berdinketak jarraitzen badu, azkeneko proban sailkapen onena zeinek lortu duen aintzat hartuko da.

EX-AEQUO kasuetan, txirrindulariak EX-AEQUO hasten deneko postuari dagozkion puntuak jasoko ditu.

### C. Taldekako sailkapen orokorra

Talde bakoitzak proba bakoitzean lortutako puntuen batura izango da.

Puntuetan berdinketarik balego, proba puntuagarriean lehenengo postu gehien lortu dituen taldea sailkapenean aurretik egongo da, eta berdinketak jarraitzen badu, aintzat hartuko zein taldek egin dituen bigarren postu gehien, eta hirugarrenak, gero. Berdinketak jarraitzen badu, sailkapen orokor indibidualean posturik onena duen taldeko txirrindularia aintzat hartuko da.



## LEHENDAKARI, EUSKALDUN, ETA ABIATZEN TXAPELKETAK

### PARTE HARTZEA

#### 30. artikulua

- Lehendakari saria: 19tik 22 urtetara bitarteko txirrindulariak, biak barne.

- Euskaldun **eta Abiatzen** txapelketa:

- 19tik 26 urtetara bitarteko txirrindulariak, biak barne.
- Ezohiko baimenak: ETxF-ko Batzorde Teknikoak parte hartzeko ezohiko baimenak eman diezazkieke ETxF-ren edo Nafarroako Txirrindularitza Federazioaren lizentzia duten txirrindularieie gehienezko adina gainditzen dutenean, baldin eta kasu hauetako batean badaude:

1. Eskatzaileek egiaztatzea beste diziplina batzuetan garrantzia handia duten geroko txapelketetarako prestakuntza dela, hala nola Joko Olinpikoak, Munduko eta/edo Kontinenteko Txapelketak eta Munduko Kopak.
2. Eskatzaileak lehenengo 100 sailkatuen artean egotea dagokien diziplinan, Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasuneko sailkapenean.
3. Eskatzaileak lehenengo 5 sailkatuen artean egotea, azkeneko Ziklokross – ETxF Sailkapenean.
4. Eskatzaileak lehenengo 5 sailkatuen artean egotea, azkeneko BTT XCO – ETxF Sailkapenean.

Txirrindulari horiek ez dute saririk ez dietarik jasoko parte hartzen duten probetan, eta ez dira sailkapen orokor indibidualean azalduko.

Espaniako Txirrindulari Errege Federazioko taldeek lehendik sailkatu diren bi txirrindularirekin parte har dezakete gehienez ere, baldin eta Errepideko Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasuneko talde batean parte hartu badute, denboraldi batean edo gehiagoan. Arau horrek ez die profesionalak izan diren Sub-23 txirrindularieei eragiten.

Txirrindularitzaren Nazioarteko Pro-Team taldeetako, talde kontinental profesionalak edo talde kontinentaletako kideek ezingo dute Errepide-txapelketetan parte hartu.

**Lehendakari eta Euskaldun txapelketetan**, taldeek gehienez hamabi (12) txirrindularirekin parte hartu ahal izango dute proba bakoitzean. **Abiatzen Txapelketan, taldeek gehienez hamalau (14) txirrindularirekin parte hartu ahal izango dute proba bakoitzean, horietatik bi gehienez 23 eta 26 urte bitartekoak izango direlarik, biak barne.**

Bidegabeko parte hartze zein inskripzio balizko ondorengo hauetan, taldeak 20 puntuko zigorra izango du dagokion Txapelketaren taldekako sailkapen orokorean:

- Talde batean inskribatutako txirrindulariak parte hartu dutenak hamabi (12) baino gehiago balira; **edo hamalau (14) Abiatzen Txapelketan.**
- Talde batean inskribatutako txirrindulariak benetan parte hartu dutenak baino gutxiago balira.

Gainera, Parte Hartzeko Pizgarriak – Diete dagokion (36 Art.), bidegabeko gehitze horren esker taldeak 6 edo txirrindulari gehiago batzen baditu, taldeak lasterketa bateko zigorra jasoko du benetan 6 edo txirrindulari gehiagoekin parte hartu duen lasterketen kopuru osotik.

**2021.02.20**


### SAILKAPEN OROKORRAK

31. artikulua.- Hona hemen proba bakoitzeko puntu banaketa:

**Sailkapen orokor indibiduala:**

**Lehendakari, Euskaldun, eta Abiatzen txapelketak**

Postuak	Puntuak	Postuak	Puntuak	Postuak	Puntuak
1.	15 puntu	6.	10 puntu	11.	5 puntu



2.	14 puntu	7.	9 puntu	12.	4 puntu
3.	13 puntu	8.	8 puntu	13.	3 puntu
4.	12 puntu	9.	7 puntu	14.	2 puntu
5.	11 puntu	10.	6 puntu	15.	Puntu 1

Horrez aparte, proba Araudi honen 20. artikuluan aurreikusitako epean amaitu duten txirrindulariek 3 puntu jasoko dituzte, eta proban irten diren txirrindulari guztiek puntu bat jasoko dute.

2021.02.20

**32. artikulua.-** Proba puntuagarri bakoitza amaitu ostean, Lehendakari eta Euskaldun Txapelketetan liderrari dagokion maillota emango diote sailkapen orokor indibidualeko lehenengo sailkatuari, probaren arabera.

**Abiatzen Txapelketaiko proba puntuagarriean, Txapelketako liderra Elite kategoriako txirrindularia bada, sailkapen orokor indibidualako lehen 23 azpiko sailkatuari bere kategoriako liderraren maillot berezia emango zaio sari-banatze zeremonian. Aldiz, txapelketako liderra 23 azpiko txirrindularia bada, ez da beste maillotik emango.**

Lasterketan maillota jantzita ez daraman sailkapen orokor indibidualeko liderrak 25 puntuko zigorra izango du sailkapen orokor indibidualean, eta 100 euroko isuna.

Txapelketa bakoitzeko amaierako sailkapen orokor indibidualean sartzeko, nahitaezkoa da txirrindulariak txapelketa horretako proba puntuagarrien % 50an parte hartu izana gutxienez.

2021.02.20

#### Taldeko sailkapen orokorra

**33. artikulua.-** Puntuak banatzeko, talde bakoitzetik izena eman duten txirrindulariak aintzat hartuko dira, baita proba bakoitzeko taldeko sailkapena ere, modu honetara:

Ekipa bakoitzetik izena eman duten txirrindulariak:		Taldeko sailkapena proba bakoitzean	
11 edo 12 txirrindulari:	7 puntu	1. sailkatua	7 puntu
9 edo 10 txirrindulari:	6 puntu	2. sailkatua	5 puntu
7 edo 8 txirrindulari:	5 puntu	3. sailkatua	4 puntu
6 txirrindulari:	4 puntu	4. sailkatua	3 puntu
		5. sailkatua	2 puntu
		Gainontzeko sailkatuak	Puntu 1

Txapelketa bakoitzeko amaierako taldeko sailkapen orokorrean sartzeko, nahitaezkoa da taldeko 6 txirrindularik edo gehiagok txapelketa horretarako proba puntuagarrien % 80an parte hartu izana gutxienez.

#### TALDEEN AUTOEN ORDENA


**34. artikulua.-** Euskadiko eta Nafarroako taldeen autoak ETxF-k aldez aurretik ezarri duen txandakako ordena jarraituko da. Gainontzeko talde-autoen ordena zozketa bidez erabakiko da.

#### SARIAK ETA PARTE HARTZEKO PIZGARRIAK- DIETAK

**35. artikulua.-** Sailkapen ezberdinietan zehaztutako sariak eta/edo garaikurrak esleitzeko, txirrindulariak Araudi honen 20. artikuluan jasotako denboran amaitu beharko du proba.

**36. artikulua.-** Proba bakoitzean, sari eta dieta hauek banatuko dira gutxienez:

POSTUA	EUSKALDUN TXAPELKETA	LEHENDAKARI TXAPELKETA	ABIATZEN TXAPELKETA
1.	110 €	110 €	110 €
2.	90 €	90 €	90 €



3.	75 €	75 €	75 €
4.	60 €	60 €	60 €
5.	50 €	50 €	50 €
6.	40 €	40 €	40 €
7.	35 €	35 €	35 €
8.	30 €	30 €	30 €
9.	25 €	25 €	25 €
10.	20 €	20 €	20 €
11.	15 €	15 €	15 €
12.	15 €	15 €	15 €
13.	15 €	15 €	15 €
14.	15 €	15 €	15 €
15.	15 €	15 €	15 €
PH – Dietak*	300 €	300 €	300 €
<b>TOTAL:</b>	<b>910 €</b>	<b>910 €</b>	<b>910 €</b>

\* Parte hartzeko pizgarriak – Dietak

<b>Euskadiko Txapelketak</b>
<b>Elite eta 23 urtez azpikoak</b>
<b>9 €-ko 100 dieta</b>

#### Parte hartzeko pizgarriak – Dietak:

Proba inskribatu dueneko txapelketaren arabera, antolatzale bakoitza 600 € sartuko ditu txapelketaren funtsean. Denboraldiaren amaieran, txapelketa bakoitzaren funtsa honela birbanatuko da:

1. Funtsaren amaierako zenbatekoaren % 60 proba puntuagarrien % 90ean 6 txirrindularirekin edo gehiagorekin parte hartu duten araudi honen 29.A.2. artikuluan aipatuetako taldeen artean berdinbanatuko da.
2. Funtsaren amaierako zenbatekoaren % 40 proba puntuagarrien % 80an 6 txirrindularirekin edo gehiagorekin parte hartu duten araudi honen 29.A.2. artikuluan aipatuetako taldeen artean berdinbanatuko da.

Funtsa bakoitzaren zenbatekoa ETxF-ren gordailuan egongo da.

**2021.02.20**

#### AMAIERAKO SARIAK

##### 37. artikulua

###### Sailkapen orokor indibiduala:

Txapelketa bakoitzeko amaierako sariak jasotzeko, txirrindulariak txapelketa horretako proba puntuagarrien % 50an parte hartu behar du gutxienez.

POSTUA	EUSKALDUN TXAPELKETA	LEHENDAKARI TXAPELKETA	ABIATZEN TXAPELKETA
1.	250 €	250 €	250 €
2.	175 €	175 €	175 €
3.	100 €	100 €	100 €

**Abiatzen Txapelketan, irabazlea Élite kategoriako txirrindularia bada, sailkapen orokorrean indibidualean sailkatutako lehen 23 azpikoak garaikur bereizgarri bat jasoko du.**

###### Taldeko sailkapen orokorra

Txapelketa bakoitzeko amaierako sariak jasotzeko, taldeak txapelketa horretako proba puntuagarrien % 80an parte hartu behar du gutxienez, 6 txirrindularirekin edo gehiagorekin.

POSTUA	EUSKALDUN TXAPELKETA	LEHENDAKARI TXAPELKETA	ABIATZEN TXAPELKETA
1. TALDEA	200 €	200 €	200 €

**2021.02.20**




## ARTIKULU GEHIGARRIAK

### **A. artikulua. Txirrindulari eta Kirol Zuzendariaren arteko komunikaziorako sistema erabilera lasterketan**

Baimena ematen da irratia edo txirrindularientzako urrutiko beste komunikazio-tresna batzuk erabiltzeko, bai eta horretarako baliozko edozein ekipamendu edukitzekoa ere, honako muga hauek kontutan hartuta:

- Erabilitako igorle-hartzailaren potentzia ez da 5 watt baino handiagoa izango;
- Sistemaren ekintza-erradioa lasterketak okupatutako espaziora mugatuko da soilik;
- Talde bereko txirrindularien arteko komunikazio-trukeak egiteko errezerbatua izango da, eta horien eta haien kirol-zuzendariaren arteko komunikazio-trukeak.

Gainera, sistemaren erabilera nahitaezkoa da arlo horretan behar diren adminitrazio eta lege-baimenen arabera, eta txirrindulariaren etika eta arbitrio askea betetzeko arrazoizko eta zentzuzko erabilera izan behar dute.



## EUSKADIKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOKO ERREPIDEKO PROBEN ARAUDIAREN I. ERANSKINA (25. artikulua)


### NAZIOARTEKO TXIRRINDULARITZA BATASUNEKO TXIRRIDULARITZA KIROLAREN ARAUDIKO ZIGORREN ETA PENALIZAZIOEN TAULARENA

#### LASTERKETAKO EKINTZAK

- 1.1 Sinadura kontrolik gabeko irteera
- 1.3. Protokolo zeremonietan ez parte hartza
- 1.4. Protokolo zeremonietan ez-arauzko jantzia erabiltzea
- 1.5. Kanporatuta egotean Helmuga dortsalarekin zeharkatzea.
- 1.6. Helmuga berriro zeharkatzea lasterketaren noranzkoan dortsala jarrita.
- 2.1 Irteeran bizikleta desegoki batekin aurkeztea
- 2.2 Lasterketan bizikleta desegokia erabiltzea
- 2.3 Lasterketan 1.3.010 artikuluarekin bat ez datorren bizikleta erabiltzea(iruzur teknologikoa)
- 2.4. Lasterketan baimendu gabeko urrutiko komunikazio sistema bat erabiltzea
- 2.6. Materialaren kontrola saihestea, eragoztea edo oztopatzea
- 3.1. Liderraren maillota ez janztea
- 3.2. Jantzi desegokiak
- 3.3. Derrigorrezko kaskorik gabeko txirrindularia
- 3.4 Probaren garapenean kaskoa kentzen duen lasterkaria
- 3.6. Dortsal, sorbalda zenb., koadro-plaka gabezia, ikusiezina, ezagutezina, aldatua edo araudiarekin bat ez datorrena
- 3.7. Kronometraje edo lokalizazio gailuaren instalazioari, edo ez itzultzeari, uko egitea edo eragozpenak jartza
- 3.8. Jantzien jasotze edo entregatze irregularra

#### ZIGORRAK ETA PENALIZAZIOAK

- Txirrindularia: 50 CHF eta 2 puntu ETxF  
Sailkapenean  
Kirol Zuzendaria: 50 CHF
- Txirrindularia: 200 CHF eta proban eskuratutako sarien eta puntuen ezabaketa.  
Kirol Zuzendaria: 200 CHF
- Txirrindularia: 100 CHF  
Kirol Zuzendaria: 100 CHF
- Txirrindularia: 200 CHF
- Txirrindularia: 50 CHF
- Irteteko debekua
- Txirrindularia: Kanporaketa edo deskalifikazioa  
Taldea: 200 CHF
- Txirrindularia: Kanporaketa edo deskalifikazioa.  
Taldea: Kanporaketa edo deskalifikazioa
- Txirrindularia: Kanporaketa edo deskalifikazioa  
Kirol Zuzendaria: Kanporaketa  
Taldeko Autoa: Kanporaketa
- Txirrindularia: Kanporaketa edo deskalifikazioa  
Taldeko beste kide bat: Kanporaketa
- Ikusi 32, 45, 53 edo 60 Artikuluak.*
- Txirrindularia: Irteteko debekua, kanporaketa edo deskalifikazioa
- Irteteko debekua
- Kanporaketa eta 50 CHF
- Txirrindularia: 50 CHF  
Kirol Zuzendaria: 50 CHF txirrindulari bakoitzeko
- Txirrindularia: Irteteko debekua  
Kirol Zuzendaria: Kanporaketa  
Txirrindularia: 50 CHF



3.9. Eritako desegokia (maillotaren disenaren kalkulua ezberdina, edo ez gardena), edo taldearen izenik gabea

Kirol Zuzendaria: 100 CHF

4.1. Beste talde bateko lasterkariari laguntza material irregularra ematea

Txirrindularia: Ohartarazpena  
Taldea: Ohartarazpena

4.2. Bat-bateko erreleboak:

Inplikatutako txirrindulari bakotza:  
Kanporaketa eta 100 CHF

4.2.1. Taldeko kideen artean  
4.2.2. Kide ez direnen artean

Inplikatutako txirrindulari bakotza: 100 CHF (\*)  
Inplikatutako txirrindulari bakotza: 100 CHF eta kanporaketa edo deskalifikazioa

(\*) Gainera, Komisarioen Elkargoak inplikatutako txirrindularien kanporaketa edo deskalifikazioa ebatzi ahal izango du, arau-haustea probaren amaieran egin izan denean.

4.3 Auto, moto edo txirrindulariarekiko/arteko bultzada, publikotik jasotako bultzada iraunduak eta errepikatuak

50 CHF arau-hauste bakotzeo

4.4. Zirkuitu amaieran baimenik gabe elkarri laguntza

Inplikatutako txirrindulari bakotza: 100 CHF, kanporaketa edo deskalifikazioa

4.5. Proba bere kabuz edo norbaiten laguntza irregularrik gabe amaitu ez duen txirrindularia

Txirrindularia: 100 CHF eta kanporaketa edo deskalifikazioa, eta 20 puntu ETxF Sailkapenean

4.6. Motordun ibilgailuan edo ibilgailu horretako bidaiaiek bultzatutako/atoian eramandako/heldutako batean eutsitako txirrindularia, edo martxan dagoen ibilgailu batetik eginiko biziakletaren manipulazio mekanikoa

Txirrindularia: 100 CHF eta kanporaketa edo deskalifikazioa, eta 20 puntu ETxF Sailkapenean  
Gidaria: 100 CHF eta kanporaketa  
Ibilgailuaren Kirol Zuzendari arduraduna: 100 CHF eta kanporaketa  
Beste lizentziadun bat: 100 CHF eta kanporaketa  
Inplikatutako beste norbait: Kanporaketa  
Ibilgailua: Kanporaketa ordezta izan ezinik

4.7. Motordun ibilgailuaren atzean babestea edo bere estela jarraitza

Txirrindularia  
1. Arau-haustea: 50 CHF  
2. Arau-haustea: 100 CHF  
Gidaria:  
1. Arau-haustea: Ohartarazpena  
2. Arau-haustea: 100 CHF  
Ibilgailuaren Kirol Zuzendari arduraduna:  
1. Arau-haustea: Ohartarazpena  
2. Arau-haustea: 100 CHF

Gainera, Komisarioen Elkargoak txirrindulari arau-hauslearen kanporaketa edo deskalifikazioa eta/edo inplikatutako beste edozeinen kanporaketa ebatzi ahal izango du, errepikatzen diren kasuetan edo zirkunstanzia larrigarriean.

4.8. Taldeko autoetako bizikleta ordeztea, asistentzia neutroa, erratz-autoa, edo helburu horretarako prestaturako eremuetatik kanpo

Txirrindularia: 100 CHF eta kanporaketa edo deskalifikazioa

4.9. Gorputza auto barrutik kanpora ateratzea edo bertatik kanpo materiala prestatuta izatea

Gidaria: 100 CHF  
Ibilgailuaren Kirol Zuzendari arduraduna:  
1. Arau-haustea: 200 CHF  
2. Arau-haustea: 500 CHF  
3. Arau-haustea: 500 CHF eta kanporaketa  
Beste lizentziadun bat:  
1. Arau-haustea: 100 CHF  
2. Arau-haustea: 200 CHF



4.10. Baimenik gabeko horridura

4.10.1. Lehen 30 Km-eten

4.10.2. Azken 20 Km-eten

4.11. Horridura irregularra (bidoi *itsatsia* distantzia laburrean, lekutik kanpoko horridura, etab.).

5.1 Hautatutako korridoretik desbideratzea aurkariak modu irregularren oztopatz edo haien arriskuan sartuz eta sprint irregularra (zehazki, beste txirrindulari bati maillota edo aulkia heltzea, beldurraraztea edo mehatxua, burukada, belaunkada, ukabilkada, eskukada, sorbalda, etab. direla medio)

6.1. Txirrindulari edo auto batek borondatez jarritako oztopoak beste lasterkari edo ibilgailu baten aurrerapena eragozteko helburuarekin

6.3. Arau-haustea araudi xedapenekekiko edo errepideko ibilgailuen zirkulazioarekin lotutako instrukzioekiko, edo komisarioen eta/edo antolatzailearen instrukzioak ez errespetatzea

7.1. Ibilbidetik desbideratzea abantaila lortuz, distantzia osoa estali izan gabe sailkatzeko ahalegina

7.2. Motordun ibilgailu batean igo ondoren probara itzultzea

7.3. Kanporatua izatea saihesteko adierazpen edo portaera antolatua

7.4. Komisario batek kanporatzea agindu ondoren proba utzi nahi ez duen txirrindularia

7.5. Ibilbidearen atal bat, edo Helmuga oinez bere bizikleta gabe zeharkatu duen txirrindularia

7.6. Espaloitan, oinezko bidetan edo ibilbidea osatzen ez duten bizikleta errailetan ibiltzea edo zirkulatzea

(\*) Gainera, Komisarioen Elkargoak azken postura atzeratzea edo txirrindulari arau-hauslearen kanporaketa edo deskalifikazioa ebatzi ahal izango du, maniobraren bidez abantaila lortu denean edo erreparatzen diren kasuetan edo zirkunstantzia larrigarriean.

7.7. Trenbide-pasagune itxia edo ixten ari dena zeharkatzea (soinu eta/edo ikusmen seinale aktiboak)

7.8. Iruzurra, iruzur saiakera, talde ezberdinako txirrindularien artean edo inplikatutako beste lizentziadun edo konplize batekin

3. Arau-haustea: 500 CHF eta kanporaketa

Txirrindularia: 50 CHF

Kirol Zuzendaria: 150 CHF

Txirrindularia: 50 CHF

Kirol Zuzendaria: 150 CH

Txirrindularia: 50 CHF arau-hauste bakoitzeko

Kirol Zuzendaria: 50 CHF arau-hauste bakoitzeko

Txirrindularia: 100 CHF eta kanporaketa  
edo deskalifikazioa

Txirrindularia: 100 CHF eta kanporaketa  
edo deskalifikazioa  
Beste lizentziadun bat: 200 CHF eta kanporaketa

Gidaria: 100 CHF

Ibilgailuaren Kirol Zuzendari arduraduna: 100 CHF

Taldeko autoa: Atzerakada azken postura  
lasterketaren gainerako epean edo kanporaketa  
Beste ibilgailu bat: Kanporaketa

Txirrindularia: 100 CHF eta kanporaketa edo  
deskalifikazioa, eta 20 puntu ETxF Sailkapenean

Txirrindularia: 100 CHF eta kanporaketa edo  
deskalifikazioa, eta 20 puntu ETxF Sailkapenean

Ibilgailuko gidaria: 100 CHF  
Ibilgailuaren Kirol Zuzendari arduraduna: 100 CHF

Taldeko autoa: Kanporaketa  
Beste ibilgailu bat: Kanporaketa

Txirrindularia: 100 CHF eta kanporaketa edo  
deskalifikazioa, eta 20 puntu ETxF Sailkapenean


Txirrindularia: 100 CHF eta 25 puntu ETxF  
Sailkapenean

Txirrindularia: 100 CHF eta kanporaketa edo  
deskalifikazioa

Txirrindularia: 50 eta 100\* CHF artean eta 5  
puntu ETxF Sailkapenean

Txirrindularia: 200 CHF eta 10 puntu ETxF  
Sailkapenean

Txirrindularia: 100 CHF eta kanporaketa edo  
deskalifikazioa



eginiko hitzarmena

Beste lizentziadun bat: 100 CHF eta kanporaketa

8.1. Antolatzailearen edo komisarioen instrukzioak ez  
errespetatzea

Txirrindularia: 50 eta 100 CHF artean  
Beste lizentziadun bat: 50 eta 200 CHF artean

8.2. Erasotzea, beldurraraztea, iraintzea, mehatxatzea, portaera desegokia (beste txirrindulari baten maillota edo aulkia hiltzea, kaskoarekin, belaunarekin, ukabilarekin, sorbaldarekin kolpatzea, ostikada edo ukabilkada, jendaurrean pixa egitea, etab.), edo lotsagabea edo beste norbait arriskuan jartzen duena erakustea:

8.2.1. Txirrindularien artean edo txirrindulari baten aurka

Txirrindularia: 50 eta 500\* CHF artean  
arau-hauste bakoitzeko eta 10 eta 25 puntu  
artean ETxF Sailkapenean.  
Beste lizentziadun bat: 500 CHF eta kanporaketa

8.2.2. Beste norbaitengana (ikusleak barne)

Txirrindularia: 50 eta 500\* CHF artean  
arau-hauste bakoitzeko eta kanporaketa edo  
deskalifikazio bakoitzeko eta 10 eta 25 puntu  
artean ETxF Sailkapenean  
Beste lizentziadun bat: 1000 CHF

(\*) Gainera, Komisarioen Elkargoak arau-hauslearen kanporaketa edo deskalifikazioa ebatzi ahal izango du,  
maniobraren bidez abantaila lortu denean, edo errepikatzearen kasuetan edo zirkunstantzia larrigarrietan.

8.3. Galtzadara edo ikusleriaren eremura objektu bat  
zuhurtziarik gabe edo modu arriskutsuan botatzea

Txirrindularia edo beste lizentziadun bat:  
1. Arau-haustea: 50 CHF  
Errepikatza: 100 CHF-koa arau-hauste  
bakoitzeko (Taldea zigortuko da txirrindularia  
identifikatza ezinezkoa izan denean).

8.4. Eko-gunetatik (xede horretarako egokitutako eremuak)  
kanpo hondakinak botatzea

Txirrindularia edo beste lizentziadun bat:  
1. Arau-haustea: 50 CHF  
Errepikatza: 100 CHF-koa arau-hauste  
bakoitzeko (Taldea zigortuko da txirrindularia  
identifikatza ezinezkoa izan denean).

8.5. Beirazko objektu bat eramatea, erabiltza edo botatza

Edozein lizentziadun: Kanporaketa eta 50 CHF

8.6. Gizalegezko jokabidea edo lizunkeria (zehazkiago,  
jendaurrean txiza egitea irteeran, lasterketan, helmugan edo  
lasterketan zehar, biluztu egitea).

Txirrindularia edo beste lizentziadun bat:  
1. Arau-haustea: 50 CHF  
2. Arau-haustea: 100 CHF

9. Banakako erlojupeko probak

Txirrindularia: Kanporaketa edo deskalifikazioa  
Taldea: 200 CHF

9.1. Komisarioek kontrolatu gabeko bizikleta batekin irtetea

Txirrindularia: 50 CHF  
Kirol Zuzendaria: 50 CHF txirrindulari arau-  
hausle bakoitzeko

9.2. Bizikleta edo ekipamendua bere kontrolerako ez aukeztea  
txirrindularia irteteko ordua baino 15 minuto lehenago

Txirrindularia: 50 CHF arau-hauste bakoitzeko  
Taldea: 200 CHF arau-hauste bakoitzeko


9.3. Araudiko distantziak eta eremuak ez errespetatzea

Txirrindularia: 50 CHF arau-hauste bakoitzeko  
Taldea: 200 CHF arau-hauste bakoitzeko

9.3.1. Estela

Txirrindularia: 20"-ko penalizazioa arau-hauste  
bakoitzeko  
Kirol Zuzendaria: 100 CHF arau-hauste  
bakoitzeko

9.4. Txirrindulariaren atzetik 10 m-ko distantzia  
errespetatzen ez duen ibilgailu jarraitzailea



## II. ERANSKINA

### COVID-19ren AURREKO XEDAPEN IRAGANKORRAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEOGOAN EGITEN DIREN PROBETAN APLIKATU BEHARREKOAK

*Lehenengoa.- Kontingentzia-plana*

- Covid-19aren sintomarik ohikoenetakoren bat (sukarra, hotzikara, eztula, aire-falta sentsazioa, usaimena eta dastamena txikitu, eztarriko mina, muskuluetako mina, buruko mina, ahultasuna, beherakoa edo botalarria) duen oro bere etxeen egon beharko da eta osasun-zerbitzuari jakinarazi beharko dio ahalik eta lasterren.
- Era berean, etxeen beste batekin edo batzuekin bizi bada, harreman oro ekidin beharko du eta, ahal dela, gela batean egongo da bera bakarrik osasun-zerbitzuaren jarraibideak jaso arte.
- Covid-19arekin bat datorren sintomatologia hautemanet gero kirol-probaren ondorioz, zeregin horretarako izendatutako osasun-arloko pertsonak edo berariaz izendatuak Osakidetzara igorriko du kasua, osasun publikoko protokoloak ezartzeko.
- Kirolaren batek edo talde teknikoko norbaitek COVID-19 gaixotasuna duela jakinez gero edo gaixotasun horren sintomak izanez gero edo baieztagatutako kasu batekin harreman estua izanez gero, berehala jakinaraziko die osasun-agintariei Osakidetzak ezarritako bideak erabiliz eta une oro haren jarraibideak jarraituz.

*Bigarrena.- Irteeran eta Helmugan txirrindularien eta teknikarien pilaketak saihesteko neurriak*

- Proba bakoitzean gehienez ere 200 txirrindularik hartuko dute parte.
- Kiroliek ez dute maskararik eraman beharko beroketak egitean eta lehiatzean ere ez.
- Txirrindulariak Irteerako zonara maskara behar bezala jarrita joango dira eta ez dute kenduko Irteerako Epaileak baimendu arte, irteera neutralizatua hasi baino segundo batzuk lehenago.
- Baimena emandakoan, txirrindulari bakoitzak bere maskara gordeko du; ezingo da lurrera bota edo hirugarren pertsona bat eman.
- Helmugan erakunde antolatzaleak Helmugako Lerroaren ondorengo 50 metroetako (balaztatzenko eremua) sarbidea mugatu egingo du hesiak edo beste bitarteko batzuk erabiliz eta eremu horretan txirrindulariak eta probako langile ofizialak baino ez dira egongo. Dena dela, pertsona hauek ahalik eta denbora laburrena egongo dira zona horretan, pilaketak saihestuko dituzte eta eremua berehala hustuko dute.
- Txirrindulariek izan ezik, gainerako guztiak maskara erabili beharko dute. Txirrindulariek maskara erabili beharko dute zona husten duten une beretik eta ahalik eta lasterren hustuko da zona.

*Hirugarrena.- Bulego iraunkorra / Izen-emateen kontrola*

- Izen-emateen kontrola dagoen tokian Epaimahai Teknikoko burua, Epaimahaiko idazkaria eta taldeko kirol zuzendari bat baino ezingo dira egon; gainerako zuzendariak lokaletik kanpo egon beharko dira, elkarrengandik 1,5 metroko distantziara eta maskararekin.
- **Taldeek eta txirrindulariek posta elektronikoz formalizatu behar dituzte izen-emateak; ETxF-ra bidali behar da mezua, proba hasi baino gutxinez 48 ordu lehenago.**
- Antolakuntza - Epaimahaia - Kirol zuzendari arteko bilera antolatuz gero, beharrezko distantziarekin jarriko dira aulkia eta inoiz ez da lokalaren edukieraren %60 baino gehiago beteko.


**2021.02.20**

*Laugarrena.- Ibilgailu jarraitzaileen aparkalekuak*

- Erakunde antolatzaleak antolakuntzako ibilgailuentzat, ofizialentzat eta taldekoentzat jarriko duen aparkalekuak behar bezain zabala izan behar da, pertsonen pilaketarik egon ez dadin eta pertsonen artean 1,5 metroko distantzia gorde dadin une oro.

*Bostgarrena.- Ibilgailuen okupazioa eta pertsonen garraioa lehiaketan:*

- Ibilgailuen okupazioa eserita joan daitezkeen plazzen berdina izan daiteke, baina pertsona batetik bestera ahalik eta distantziarik handiena mantentzen saiatu behar da ahal den guztietai. Ibilgailuan doazenek maskara erabili beharko dute, denak etxebizitza berean elkarrekin bizi ez badira.
- Motozikleten kasuan, eskularruak erabili beharko ditu gidariak eta gidariarekin doanak ere bai, erabilera partekatuko motozikletak badira. Motorzaleen babes-eskularruak onartuta daude kasu hauetan.




*Seigarrena.- Podiuma / Protokolozko zeremonia*

- Podiuma behar bezala egokituta egon beharko da, sariak eta maillotak eman ahal izateko, pertsonen arteko harreman fisikoa ekidingo da, gutxienez 1,5 metroko distantzia mantenduko da (baita podiumeko kaxen artean ere, egonez gero) eta maskara erabiliko da.
- Protokolozko zeremonia atek itxita egitea gomendatzen da, saritutako txirrindularia(k) eta lagunzaile bat baino ez dira sartuko, osasun neurriak kontrolatzeko erakunde antolatzailak izendatutako pertsona eta saria emango duenaz gain.
- Taldekako saria hartu behar izanez gero, talde irabazleko pertsona bakarra eta lagunzaile bat joango dira, ekitaldia atek itxita eginez gero.

*Zazpigarrena.- Auto neutroetatik egiten den horridura*

Hermetikoki prezintatutako plastikozko botilatxoak baino ez dira baimenduko.



## REGLAMENTO PRUEBAS DE RUTA

20.02.2021

### **DISPOSICIONES GENERALES**

**Artículo 1.-** La EUSKADIKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA (ETxF), en colaboración con las Federaciones Alavesa, Bizkaina, Gipuzkoana y Navarra, y con los Clubes y Agrupaciones Deportivas adscritos a las mismas, organiza y regula mediante el presente Reglamento los Torneos Lehendakari Txapelketa, Euskaldun, **Abiatzen**, Euskal-Herria, Gaztetxoak y Euskaldun Femenino, y Campeonatos de Euskadi en Ruta.

**Artículo 2.-** El ámbito de aplicación del presente Reglamento comprende todas aquellas competiciones contenidas en los Torneos de Ruta y Campeonatos de Euskadi en Ruta, que no se encuentren incluidas en el Calendario de la Unión Ciclista Internacional (UCI) o de la Real Federación Española de Ciclismo (RFEC) y a todas aquellas personas o entidades que de una u otra forma participen en estas pruebas. Siendo obligatorio conocerlo, no pudiendo en ningún caso alegar ignorancia de los mismos.

**Artículo 3.-** A excepción de las disposiciones particulares de los Torneos de Ruta contenidas en el presente Reglamento, las competiciones se regirán por analogía a lo dispuesto en los Reglamentos Técnicos, de la RFEC, y en el Reglamento del Deporte Ciclista, de la UCI.

**Artículo 4.-** El Jurado Técnico, en primera instancia, y la ETxF se reservan el derecho de modificar el presente Reglamento y de resolver cuantas situaciones o casos excepcionales pudieran derivarse de la aplicación y/o interpretación del mismo en el ámbito puntual de cada prueba.

### **CALENDARIO - PRUEBAS PUNTUABLES**

**Artículo 5.-** Las pruebas que componen el calendario de los torneos de la ETxF serán seleccionadas por la Comisión Técnica de la ETxF, previo estudio de las solicitudes presentadas que cumplan con el Pliego de Condiciones.

**Artículo 6.-** Serán puntuables independientemente para cada una de las diferentes competiciones señaladas en el Art. 1 del presente Reglamento, todas aquellas pruebas inscritas en el Calendario de Ruta de la ETxF anual, en las que figure su condición de prueba comprendida en los Torneos: Lehendakari Txapelketa, Euskaldun, **Abiatzen**, Euskal Herria, Gaztetxoak o Euskaldun Femenino.

20.02.2021

**Artículo 7.-** Los Clubes organizadores presentarán sus propuestas de fechas a la ETxF, a través de sus Federaciones Territoriales y con anterioridad a la celebración de la Asamblea Ordinaria de la ETxF. El Calendario definitivo será confeccionado por la ETxF.

**Artículo 8.-** En caso de suspensión de una prueba por motivos no justificados, el Club organizador perderá su derecho de preferencia para dicha fecha y categoría en años sucesivos.

### **CONDICIONES DE PARTICIPACIÓN E INSCRIPCIÓN**

